

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua bezeroei helerazteko hainbat kanal zuzen erabiliko ditugu, hots: anuntzioak, web orrialdeak, sare sozialak... gizarteak gure proiektuaren berri izan dezan. Sare sozialei dagokionez Twitter, Instagram, Facebook, TikTok eta Gmail sortu ditugu:

- Gmail: onewithwordsoww@gmail.com
- Twitter: @OneWithWordsOWW
- Instagram: @onewithwordsoww
- Facebook: @Onewithwords Oww
- TikTok: @onewithwordsoww
- Gainera web orrialde bat ere daukagu:

<https://sites.google.com/durangobhi.net/onewithwords/orri-nagusia>.



Era berean, telebistan eta sare sozialetan gure enpresaren iragarkiak jartzea pentsatuta daukagu. Hori egiteko iragarkia ETB 1en jartzea erabaki dugu 15h00etatik-20h00etara igandetan, ordu tarte horretan jendeak telebista ikusten duelako. Hori aurrera eramateko 385 euro ordaindu beharko ditugu. Gainera, Youtuben ere iragarki bat egitea ere pentsatuta daukagu, prezioa 0.10 euro ingurukoa izaten da bistaratzeko edo klik bakoitzeko. Modu berean, hainbat topaketa eta hizketaldi desberdinetara joatea erabakita daukagu

Bestalde, denda fisiko bat zabaltzea pentsatuta daukagu Atxondon, gure taldekide baten garajeon. Bertan, produktua salduko dugu eta erosle edo erosle potentzialen arazoak eta zalantzak argituko ditugu.

Gainera gure produktuak, online salduko ditugu, baita gure denda fisikoan ere. Online eskatzen diren produktuak correos bidez bidaliko ditugu.